BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1428

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 12koa, Industriako sailburuordearena, beherago zehaztu aginduan aurreikusitako laguntzen 2013. urteko onuradunen zerrenda argitara emateko dena: Agindua, 2012ko apirilaren 10ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira: unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko, «Global Training» deituriko Beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, laguntza horien onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da onuradunen zerrenda. Hori guztia Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2012ko apirilaren 10ean emandako Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, agindu horretan arautu baitzen «Global Training» deituriko Beken programa.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Beherago zehaztu aginduan aurreikusitako laguntzen 2013. urteko onuradunen zerrenda argitara ematea, eranskinean agertzen den legez: Agindua, 2012ko apirilaren 10ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinen bidez arautzen baitira: unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko, «Global Training» deituriko Beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 12a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCIA DE MOTILOA UBIS.

ERANSKINA

2013 GLOBAL TRAINING BEKAK

Erakundearen izena	Beka kopurua	Emandako zenbatekoa
Cámara de Comercio de Alava	25	216.215,50
Cámara de Comercio de Gipuzkoa	25	216.215,50
Cámara de Comercio de Bilbao	25	216.215,50
Fomento de San Sebastián	50	432.431,00
Fundación Novia Salcedo	53	458.376,86
Mondragon Unibertsitatea	42	362.822,04
Politeknika Ikastegia Txorierri,S.Coop.	50	432.431,00
Sabática Consultores, S.L.	15	129.729,30
Universidad de Deusto, S.L.	40	345.944,80
Universidad del País Vasco / EHU	20	172.972,40
Confebask	15	129.729,30
Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo Garapen	10	86.486,20